

GAUZAK diseinatzen



Ula Iruretagoiena °

Aldiri, 2012, III, 9, 36-39, ISSN 1889-7185
 Jasotze-data: 2011-12-28 / Onarpen-data: 2012-1-13



www.gauzak.com

Designed by **GAUZAK.**
for **Quattria**


Zenbait diseinu-bloggek objektuen sormenari buruzko azken berriak iragartzen dituzte. Punta-puntako azken produktu cool-en jarioak dira. Haien bitartez, diseinuaren lan-ildoak iragar daitezke: birziklaturiko materialez eginak direnak, ohikotasuneko eginkizunetarako beharrezkoak diren objektuak edertzeko gaitasuna dutenak, irribarrea eragiteko pentsatutako diseinuak, gure bizitzako eginbeharrak errazteko pentsaturiko diseinuak.

Horrelako blog bat ikuskatzean, altzairuzko tutuen bidez egindako hainbat altzari funtzionalek nire atenzioa eman zidaten, materiala horren modu burutsuan erabiliak izateagatik. Eta behin amua harrapatutik, informazioa jasotzeko klik egin ostean, diseinatzaile-taldearen izena deigarri suertatu zitzaidan: Gauzak. Egun, eraikin, egoera, programa edo edozein eginkizun izendatzeko anglosaxoi hitz bat tartekatzeko joera indartsuaren aurrean, lan-taldearen izena euskaraz izateko erabakiak badu berezitasunik. Nire jakin-mina arras piztuta, diseinatzaileen webgunera abiatu, eta hara hor, non aurkitzen dudun produktu bakoitza sofistikazioz, zainduta eta girotze-lan sakonarekin aurkeztua dela. Izan ere, objektuek espazio baten izaera definitzeko gaitasuna izan dezakete, espazio-erakitzzaile izateko helburua beren gain hartzen baldin badute, Gauzak.en aurkezpenek iradokitzen duten bezalaxe. Nire deskubrimendu zibernetikoak elkarriketa mamitsuan bukatu zuen, nire jakin-mina asezu.

Gauzak. Leire Pérez eibartarrak eta Juan Tomás Carboneras eta Arkaitz Arco madrildarrek osatzen dute. Hainbat lan-sektore frogatu ostean (branding, barne-diseinua, diseinu-industrialia), elkarrekin lehiaketak egiten hasi eta irabazle suertatzean, lan-taldea osatzea erabaki zuten, lan-egoitza Bartzelonan finkatuz.

Hirukote honek sormen-hazia, ohikotasunaren behaketatik eta objektuekin bizi duten esperientziatik abiatuta jasotzen dute. Hainbat produktu ekoitzi dituzte bezero definiturik gabe, saiakuntza-lan arrakastatsua izan direnak. Lan horien artean, Fly izeneko argiztapen eta loreontzi hibrido dago, edo Autumn izeneko, tapiz modular bat haurrak lur bigun eta koloretsuan jostatu daitezkeen. Objektu hauek lagun eta familiarrekoen iritziak jasotzen dituzte. *“Behin erabiltzaile-laginak jasorik, emaitza baloratzzen dugu. Jakin badakigu erabiltzaile guztien egokitasunik lortzea ezina dela, baina gerturatzeko-lana beharrezkoa dela uste dugu. Erabiltzailea baino, erabiltzeko moduetan pentsatzen dugu”* kontatu didate.

Ekoizle-enpresa batekin ere badute esperientziarik. Berriki 3 produktu merkaturatu dituzte Quattria enpresarekin elkarlanean: MARC, CAMPS eta JORGE izeneko aldizkari-gordailu eta mahaia, euritako-ontzia eta aldizkari-gordailua hurrenez hurren. Quattriak, Gauzak-en prototipoak ikusi eta elkarrekin




JORGE aldizkari-gordailua.

lan egiteko proposamena egin zien, disainatzaileekin fidatzen zirelako. “*Konfiantzazko harreman hau oinarritzkoa da emaitza on bat erditzeko*” diote Gauzak-eko kideek.

Bezeroak helburuak zehazten ditu *briefing* deritzon txostenean. Quattriarekin izandako esperientziaren kasuan, bezeroak diru-inbertsio txikia egin nahi zuen lehen lan honetan eta, beraz, altzaria egiteko materialak gertukoa behar zuen izan, horrek gastuak zeharo merkatzen baitzituen. Honela azaltzen dute Gauzak taldeko kideek materialaren aukeraketa-bidea: “*Kostu*

baxuak baldintzatuta, altzairu tubularrean pentsatu genuen, kostu-abantaila nabariak izateaz gain, altzairuaren arintasun izakerak bisualki erakargarria gertatzen zitzaigulako. Materiala gertu ekoizteaz gain, lodiera desberdinak abalbidetzen ditu eta manipulazioa erraza da, beste material solido batzuekin alderatuz. Materialak berak definitu zituen bilduma berriaren ezangarriak: arrazoizko prezioa, berezia eta arina”. Argudio hauek arkitekturaren materialtasunaren prozesuarekin badute paralelotasunik.



Goian eta ezkerrean, MARC aldizkari-gordailu eta mahaia eta behean eskumaldean, CAMPS euritako-gordailua.

“Diseinatzaile talde gaztea garen arren, baditugu lan-prozesuan komunak diren zenbait helburu. JORGE aldizkari-gordailua har dezagun kasu. Produktzio-kostu baxuen baldin-tzapean, objektu sinplea, arina eta funtzionala gailendu da. Altxairubodien industrializazioa erraza da eta gainera pisu gutxi du, eskuz maneiagarri izatea abantaila handia da eta oso kontuan hartzekoa.

Aldizkari-gordailuek bolumen handia obi dutelako, kokatzen direneko espazioa baldintzatzen dute. JORGE pentsatzen ari ginenean, gordailuaren egiturak obarkabeko presentzia izatea nahi genuen testuinguru guztietan egokitzeko aukera izateko,

baina sinpletasun izaerak, aldi berean, erakargarria suertatu behar zuen. Kalitatezko produktuen alde egiten dugu, iraunkortasuna bermatu dadin eta abalik eta bizitza luzeena izan dezaten. Produktu merkeen kontsumo-zurrumbiloan bizji gara eta epe laburrean pentsatzen da. Gure produktuek zabartze-prozesua onartu behar dute, eta horregatik, adibidez, JORGE aldizkari-gordailuan, larruzko euskarriaren alde egin genuen”.

Produktuen izaera global eta lokalaz ere jardun gara. Gauzak-ek defendatzen du, “diseinatzailea, testuinguru lokal zein globalera egokitze beharra duela. Baina produktuen deslokalizazioaren eredia pixkanaka aldatzen ari da, eta



Goian, loreontzi-argia, eta behean, haurrak jolasteko zoria.

kontsumo-eredua aldatzen den beinean produkzio-bideak ere egoera berrira egokitzen dira. Gu diseinu lokalaren defendatzaileak gara, baina singularitasuna abaztu gabe. Tradiziozko materialek eta produzitzeko modu lokalak irekiak egon behar dute egoeraren arabera eraldagarriak izateko. Hots, globalitatearen gizartearen eskakizunak jaso behar ditu. Une honetan tokiko produkzio-ereduekin lotutako objektuen diseinuetan murgilduta gaude, eta egoera honek ekoiñle, banatzaile eta objektutik gertuago sentitzea ahalbidetzen du. Jakina da tokiko objektuek tradizioari dioten atxikimendua, eta gizarteak berak aldatzeko agertzen duten erresistentzia. Bide luzea dago egiteke lan-esparru horretan.

Aldiri, 2012, III, 9, 36-39, ISSN 1889-7185

Diseinuak, alabaina, badu erroko beste erronka bat ere. Diseinua gutxietsirik gertatzen da maiz, estetika kontua besterik ez delako sinismenean. Horren harira, Gauzak-ekoek duela gutxiko bitxikeria komentatu didate: “Enpresa baten e-maila jaso genuen, marrazki batzuk debalde egiteko eskatuz, guretzat esfortzurik eskatzen ez zuelakoan!”. Baina sormenak badu baliorik bai, hala frogatzen du historiak, gizakiaren bizitza-kalitatearen eboluzioa objektu baten hobekuntza txikiekin egina baita. Objektuen diseinua aldatzen ari baita etengabe, gure bizitza egokitzen duen bitartean hain zuzen ere.

www.gauzak.com

° Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakaslea da.

